

## AURREKONTUAREN MEMORIA

### 1. SARRERA.

Hernani handitzen ari da. 20.000 biztanleko muga pasa dugu eta horrek zerbitzu publikoen egokitzea eskatzen du. Herritarrei zerbitzu hobeak eskaintzeko asmoz, horretara bideratutako baliabideak antolatu eta kudeatu behar ditu Udalak. Herriko auzoak ere gero eta gehiago edota handiagoak dira eta horrek Udalak azpiegituretan, urbanizazio lanetan zein kale garbiketean egiten dituen inbertsioak handitzea dakar.

Horretaz gain, aurten egin ditugun parte-hartze eta hausnarketa prozesuetan atera den emaitza datorren urtean gauzatzeko partidak ere aurreikusten ditugu. Turismo ereduaz hausnartu genuen eta horren ondorioak martxan jartzen hasiko gara; kulturaren inguruko hausnarketak ere fruituak eman zituen eta horiek bideratzeko konpromisoa beteko dugu: sormen gunearen definizioa, kultur eskaintzaren hedapena...

Herri hobea nahi dugu eta, hori dela eta, auzoetako mugikortasuna etengabe hobetzen saiatzen ari gara. Portu eta Elizatxo oinezkoentzako atsegina eta seguruagoa egiteko obrei ekingo diegu, Laiztiagako goiko aldera igotzea erosoago izateko arrapala ere bidean dago, Etxeberriko urbanizazioaren azken fasea ere bukatuko da 2019an... Energia Planaren ekintzak gauzatzen jarraituko dugu 2019an.

Jarduera ekonomikoa bultzatzen jarraituko dugu: Galarreta eremuan beharrezkoak diren azpiegituren lanak martxan jarriko ditugu, bertan kokatuko diren jarduera berrientzat prestatzeko; tokiko garapena (Gabriel Zelaia eta Iturola elkarlan sorgunea) eta, nola ez, herriari bizia ematen dion merkataritza txikiarekin batera urte batzuetako Plana egin eta martxan jarriko dugu.

Zerbitzu sozialak dira administrazio publikoaren ardatzetako bat: adinekoentzako kalitatezko arreta, haur eta nerabeen ongizatea bermatzea, egoera ekonomiko txarrean daudenak laguntzea... eta horrek hartzen du gure aurrekontuaren zati garrantzitsu bat.

Horrekin batera, Hernani herri bizia izaten jarraitzeko herri mugimenduak eta arlo ezberdinetako eragileak laguntzen jarraituko du Udalak.

## 2. AURREKONTUAREN AZALPENA. DATU OROKORRAK.

	Aurrekontua 2019	Hasierako Aurrekontua 2018	Aldea 2019-2018
Gastuak Guztira:	32.319.683,00	27.427.709,00	4.891.974,00
Sarrerak Guztira:	32.319.683,00	27.427.709,00	4.891.974,00
Gastu arrunta:	27.591.254,00	25.129.359,00	2.461.895,00
	85%	92%	
Sarrera Arruntak:	30.722.446,00	27.055.152,00	3.667.294,00
	95%	99%	
Inbertsioak:	4.718.429,00	2.288.350,00	2.430.079,00

2019ko Udal Aurrekontuak %17,84 igoera izango du, guztira 4.891.000 euro gehiago. Hazkunde honen arrazoi nagusiak hauek dira: Foru Aldundiaren Ogasun Departamentuak 2019 urterako UFFF sarrera aurreikuspena; Papelera Zikuñagaren handitzearen bigarren faseari dagokion obra zerga; eta Galarreta-06 eremuaren urbanizazio lanak burutzeko aurreikusitako dotazioak eta bertako lurjabeek egin beharreko ekarpena. Sarreretan izandako gorakada, bai gastu arruntean eta bai inbertsiotan erabiliko dira.

### 3. AURREKONTUAREN AZALPENA. SARRERAK.

- Kapitulukako laburpena:

SARRERAK	KAPITULUKA	2019 AURREKONTUA	2018 Has aurrek	Aldea 2019-2018
1-Zergak		6.515.380,00	6.562.650,00	-47.270
2-Eraikuntza Zerga		2.954.445,00	370.000,00	2.584.445
3-Tasak		6.517.962,00	6.475.655,00	42.307
4-Transf arruntak		14.686.844,00	13.584.232,00	1.102.612
5-Ondare sarrerak		47.815,00	62.615,00	-14.800
6-Hirigintza sarrerak		1.579.699,00	6.019,00	1.573.680
7-Kapital transferentziak		7.538,00	6.538,00	1.000
8-Finantza aktiboak		10.000,00	10.000,00	0
9-Mailegua		0,00	350.000,00	-350.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>32.319.683,00</b>	<b>27.427.709,00</b>	<b>4.891.974</b>

Laburbilduz, hauek dira datu nabarmenenak:

- Zerga eta tasak: urriaren 30eko udalbatzarrak onartutako ordenantza fiskalen tarifa igoera kontuan hartu da. Igoeraren estimazioa, 95.000 euro inguru.
- OHZ-IBI-ren aurreikuspena (lehen kapitulua) 2018koa baino txikiagoa da, izan ere, urtean zehar ez baitira hazkunde aurreikuspenak bete.
- 2017ko eta 2018ko zerga eta tasen likidazioak aztertu dira, eta horren baitan 2019ko aurreikuspena osatu da.
- Kiroldagiko sarrerak egokitu dira -abonatuak eta ikastaroak-, 2018ko hazkundea kontuan hartuta. Honek, gastuetan ere dagokion ondorioa izan du.
- Udal Finantzaketarako Foru Funtsa: laugarren kapituluan -jasotako transferentzi arruntak- Foru Aldundiko Ogasun Sailak Udal Finantzakerako Foru Funtsarako 2018ko urrian egindako aurreikuspena jasotzen da. Horren arabera, 2018 urtearen likidazioa positiboa izango da, aurreikusitakoa baino %3,73 gehiago. Alabaina, hau behin behineko estimazioa da, 2018ko likidazio datua datorren otsailean ezagutuko baitugu. 2019 urterako, aurreko urtean baino %7,89 aurreikusi du Ogasun Sailak, hau da, 1.024.000 euro gehiago (hasierako aurreikuspenarekiko).

- Hirigintza sarrerak: Hirigintza sailak egindako aurreikuspenak hartu dira oinarri. Datu aipagarriena, Papelera Zikuñaga enpresak egingo duen obrari dagokion zerga da. 2018 urtean obra horren lehen fasea burutu da, eta bigarren fasea 2019an egiteko dokumentazio teknikoa tramitatzen hasi da. Aurkeztutako dokumentazioaren baitan, likidatu beharreko zerga 2.438.000 ingurukoa izatea aurreikusten da.
- Galarretako eremuaren garapena: Galarretan bi jarduketa aurreikusten dira. Batetik, Errepide Sistema Orokorak eraikitzea, GI-2132 errepidearekiko lotura. Obra hau garatzeko finantziazioaren zati bat Udalak eskuratua du, eta gainontzekoa ere eskuratuko du lursailak garatzen doazen neurrian. Bestetik, Galarreta-06 eremuaren urbanizaziorako gastuari aurre egiteko lurjabeen ekarpenak aurreikusi dira, guztira 1.577.699. Eremu honen garapena Kooperazio sistemaren bidez aurreikusia dago, Udalak egingo baitu lurjabeen kontura.

#### 4. AURREKONTUAREN AZALPENA. GASTUAK:

- Kapitulukako laburpena.

GASTUAK	KAPITULUKA	2019 AURREKONTUA	2018 Has aurrek	Aldea 2019-2018
1-Langileria gastuak		8.681.852,00	8.055.300,00	626.552,00
2-Ond. arrunten eta zerb. gastuak		12.035.940,00	11.539.237,00	496.703,00
3-Gastu finantzarioak		11.000,00	14.000,00	-3.000,00
4-Transferentzia arruntak		4.907.636,00	4.450.101,00	457.535,00
5-Kreditu Globala		1.589.826,00	708.721,00	881.105,00
6- Inbertsio errealak		4.718.429,00	2.288.350,00	2.430.079,00
7-Kapital transferentziak		0,00	0,00	0,00
8-Aktibo finantzarioak		10.000,00	10.000,00	0,00
9-Pasibo finantzarioak		365.000,00	362.000,00	3.000,00
		8.681.852,00	8.055.300,00	626.552,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>32.319.683,00</b>	<b>27.427.709,00</b>	<b>4.891.974</b>

Sarreretan izandako hazkundearen ondorioz k, %17,84, gastuetan ere hazkundera eragiten du. Nabarmenenak:

#### LANGILERIA GASTUAK:

- Aurrekontuaren eranskinean –langileen zerrenda- jasotzen dira aurrekontuan jasotako lanpostuak, izaera eta bakoitzaren urteko kostua. Oro har, %7,78ko igoera aurreikusten da, izan ere, hainbat sailetan errefortzuak eta langile dotazio berriak aurreikusten dira: Udaltzaingoa, Tokiko Garapena eta Herritarren Harrera Zerbitzua.
- 2019ko Estatuko Aurrekontuen Legeak –onartzen denean- xedatuko du aplikatu beharreko soldata igoera. Kreditu globalaren 5. kapituluan, horrelako kontingentziei aurre egiteko kopuru bat kontsignatu da, aurrerago Estatuak igoerarik baimenduko balu, igoera finantzatu ahal izateko. %2,5eko igoera aurreikuspena jaso da.
- Horrekin batera, lanpostuen balorazio prozesua ere lantzen ari da une honetan, eta horrek aurrera eginez gero, soldata egokitzapenak eragingo ditu. Horren finantzaketa, kreditu globalaren bidez egingo da.
- 2019-2023 legealdian 17 zinegotzitik 21era pasatzeak ekar dezakeen liberatuen gastu hazkunderari aurre egiteko dotazio gehikuntza aurreikusi da.

#### ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUEN GASTUAK:

- Kapitulua honetan oro har %3,91eko hazkundera aurreikusten da. Igoera horretan biltzen dira, datorren urterako aurreikusten diren zerbitzu

kontratazio edota erosketa berriak, edota gaur egun indarrean daudenen berritze eta hobekuntzak.

- Halaber, Administrazio eta funtzionamendu arrunteko hainbat partida egokitu dira: Administrazio orokorreko kontratuak, Bulego ekipoen mantenua, Posta zerbitzua...
- Kontuan izan behar da urte-arteko KPI azken datua %2,1ekoa izan dela (iraila), beraz, gastuetan urtetik urtera igoera izango dela.
- Saneamendua eta uraren kasuan, Añarbeko Mankomunitateak urriaren 26ko Batzar Nagusian onartutako igoerak aintzat hartu dira. Hori horrela, saneamendua %3 inguru igoko da, eta uraren kasuan, nahiz eta tarifa igoerarik ez dagoen, 2018ko kontsumo bolumen estimatua kontuan hartuta (etxebizitza berriak...), aurreikuspena egokitu da.

## TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Aurrekontuaren eranskinean zerrendatuta daude Udalak banatuko dituen diru-laguntza guztiak eta bakoitzaren izaera (zuzenak ala norgehiagoka bidezkoak).

Urteroko diru-laguntza programa mantentzen bada ere, aurten berrikuntza bezala, Hirigintza sailak 100.000 euroko dotazioa aurreikusi du etxebizitza birgaitzeetarako diru-laguntzak banatzeko.

Hazkunde nagusia Zerbitzu Sozialak erakundeari egin beharreko ekarpenean jasotzen da, %8,16ko hazkundera, 174.869 euro gehiago.

Ereñotzuri egin beharreko ekarpenak ere hazkundera du, 36.222 euro gehiago, %9,69ko hazkundera.

## INBERTSIOAK

Aurrekontuaren eranskinean zerrendatuta daude inbertsio atalean jasotako gastu proposamenak. Inbertsioetan 4.756.429 euro aurreikusten dira, 2018arekiko %108-ko hazkundera. Hauek dira ekimen nagusiak:

GALARRETA-06-Urbanizazioa. 06 (Butano) eremuaren urbanizazioa. Beharrezkoa Galarretako errepide sistema orokorrak antolatzen. Kooperazio sistema. Udalak egingo du, lur-jabeen kontura.	1.577.699
GALARRETA SISTEMA OROKORRA. Galarretan garatuko diren eremu berrientzat GI-2132 errepidearekiko lotura egokiak bermatzeko.	1.198.530
HERNANI ERABAKI INBERTSIOAK. Hernani Erabaki parte-hartze programan onartutako proposamenak	500.000

jasotzeko.	
BITERI KULTUR ETXEA-HOBKUNTZAK. <ul style="list-style-type: none"> <li>- Areto nagusiaren klimatizazioa, eta suteen kontrako babes.</li> <li>- Lehioak bigarren fasea.</li> <li>- Segurtasuna eta auto-babes plana.</li> </ul>	200.000
IKASTETXEA-INTERTSIOAK. Ikastetxeen eraikinetan hobekuntza inbertsioak egiteko urteroko programa.	150.000
PLANEAMENDUA-DOKUMENTU TEKNIKOAK. Hirigintzako Planeamendu garatzeko dokumentu teknikoak egitea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Lizeaga 03 eremua.</li> <li>- Kaskoko plan berezia osatu eta tramitazioa.</li> <li>- Urumea ibaiaren Plan Berezia.</li> </ul>	150.000
LANDA BIDEAK. INTERTSIOA. Iturralde-Latsa bidean izandako luiziak sortutako eraginak konpontzeko. Ura agentziaren errekerimendua.	100.000
KIROL JARDUERA-INTERTSIOAK <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kiroldegi eraikinean hobekuntzak (itokinen konponketa).</li> <li>- Gimnasia makinaren erosketa.</li> <li>- Autokontrol plana.</li> </ul> Jolas igerilekuan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ur horniketa sistema hobetu.</li> <li>- Txartelak erosteko makinak.</li> </ul>	114.000
KAMIOIA-HONDAKIN ORGANIKOAK Hondakin organikoaren bilketa egiteko kamioi berria. PIMA programaren diru-laguntza.	100.000
LATSUNBE -SORGINTXULO oinezkoen bidea Latsunbetik Sorgintxulorako oinezkoen bidea berri, eta lurrazpiko zerbitzu azpiegiturak berriak sartu.	100.000
KARABEL APARKALEKUA Karabel aparkalekua egokitzeko lanak.	60.000
IRISGARRITASUN OBRAK Irisgarritasun udal planean jasotako jarduketak garatzeko.	75.000
ENERGIA PLANA: jarduketak Udal Energia Planean jasotako jarduketak garatzeko.	75.000

INBERTSIOAK-SANEAMENDUA. Saneamendu sarea berritzeko inbertsioak. Ur zikinen isurketak murrizteko. Ura agentziaren errekerimendua.	70.000
INBERTSIOAK-UR HORNIDURA Ur hornikuntza sarea berritzeko inbertsioak. Sektorizazioa eta kontrol sistemaren garapena.	50.000
FUNTS BIBLIOGRAFIKOAK Urteko liburu hornikuntza.	44.000
MUSIKA ESKOLA-HAIZE EGOKITUA Musika Eskolako geletan haize egokitu sistema ezartzeko.	40.200
LIBURUAK KALEAN-Altzariak. Liburuak kalean-auzoetan mailegatzeko altzariak.	30.000
INFORMAZIO-PROZESUETARAKO EKIPOAK. Urteko ordenagailu hornikuntza.	25.000
SANTA BARBARA HARROBIA. Parte-hartze prozesutik aterako diren ondorioak gauzatzeko, proiektuaren idazketa.	25.000
UDALZAINGOA-IBILGAILUAK. Moto eta bizikleta elektrikoen erosketa.	15.000
TRAFIKO KAMERAK BERRITZEA. Kamera sistema berritzea, QR teknologia.	15.000
KALE ALTZARIAK. Urteko hornikuntza.	10.000
BULEGO ALTZARIAK. Urteko hornikuntza.	6.000

Inbertsio alorrean, Gobernu Taldeak baditu beste hainbat premia zehaztuak, aurrekontuan sartu ezin izan direnak. Horiekin, 2017ko aurrekontuaren likidazioa itxi eta diruzaintza gerakinaren bidez aurrekontuan txertatzeko asmoa du.



## 5. SAILEZ-SAIL (PROGRAMA) LABURPENA.

### 132-UDALTZAINGOA.

- Pertsonal alorrean, administrari baten kontratazioa urte osorako, administrazio lanetan dagoen pilaketa antolatzeke.
- Jantzietan gastu berezia, ekipazioa berritzeko, 10.000 euro.
- Udaltzaingoaren ibilgailu parkea berritzen jarraituko da, 2019 urtean moto eta bizikleta elektrikoaren erosketa aurreikusi da.
- Trafiko kameraren berritzea aurreikusi da, irakurgailua duen sistema berria ezarriko da oraingo txartel sistemaren orde.

### 151-HIRIGINTZA.

- Etxebizitzetan birgaitze lanak egiteko diru-laguntza lerroa, 100.000 euro.
- Hiri Planeamendua garatzeko lanetan ondoko dokumentu teknikoak landuko dira, guztira 150.000 euroko inbertsioa: Kaskoko Plan Berezia; Lizeagako LI-03 eremua; Urumea Ibaia Plan Berezia.
- Proiektu mailan landuko diren ekimen nagusia: Latsunbe-Sorgintxulo oinezko bidea eta bidegorriaren urbanizazioa eta Santa Barbara Harrobiari buruzko proposamenak.
- Obra mailan landuko direnak: Karabel aparkalekuaren egokitzapena.
- Energia Jasangarriaren udal plangintza jasotakoa garatzeko asmoz, bi ildo zehaztu dira Udalaren sektorean, udalerrian, etxebizitzetan eta zerbitzu sektorean eragiteko. Batetik azterketa jarduketak egiteko 75.000 euro, eta bestetik, beste 75.000 euro, inbertsio edo hobekuntza lanak burutzeko.
- Galarreta eremuko sistema orokorren exekuzioa aurreikusi da, GI-2132 errepide eta biribilgune loturen urbanizazioa, hasierako udal ekarpena guztira 1.198.530 euro, aurretik GA.09/GA.05 eremuetako jabeek eginak dituzten ekarpenekin osatu behar den kopurua.
- Galarreta eremuko GA.06 sektoreko urbanizazioa, kooperazio sisteman jabeekin landu beharra.

### 153-ZERBITZU PUBLIKOAK.

- Irisgarritasunerako 75.000 euro aurreikusi dira, Irisgarritasunerako Udal planaren garapenerako.
- Asfaltatze lanetarako, 2018 urteetako partidetan jasota dagoen kontsignazioa txertatu eta erabiliko da.
- Landa bideetan, 100.000 euroko inbertsioa aurreikusi da. Besteak beste, Iturralde-Latsa bidean izandako lur jauziaren eraginak konpontzeko izango da (Ura agentziaren errekerimenduz).
- Saneamendu-arazketa mantenuaren partida handitu da, 60.000 euro arte, ekaitz tankeen mantenu lanak burutzeko.
- Ur hornikuntza, saneamendu-arazketa eta argiteria publikoaren sareen mantenua eta hobekuntzak egiteko, urtero moduan, partidak aurreikusi dira. Mantenerako, 240.000 eta inbertsio hobekuntzetarako 120.000. Argiteria

alorrean hobekuntzetarako partidak jasota daude beste programen bidez: energia jasangarritasuna eta Hernani erabaki.

## 162-HONDAKINEN BILKETA ETA KUDEAKETA.

- Garbitania s.l.-k egindako aurreikuspena jaso da, herriko bilketa eta poligonoetako bilketarako.
- Organikoaren bilketarako kamioi berezi baten erosketa aurreikusten da. Erosketa gauzatzen bada 2018 urteko PIMA diru-laguntza jaso dezakegu (28.000).

## 163-KALE GARBIKETA.

- Garbitania sl-ren aurreikuspena jaso da (Udalari dagokio %97,80 eta Ereñotzuri %2,80). 2019 urterako hazkunderik ez da aurreikusten. Kopuru horretan sartuta daude 2019 urteko langileen soldata igoera eta hainbat zerbitzu hobekuntza (jai, opor eta baja egunen ordezkapena).

## 172-INGURUMENA

- Jarduketa nagusia azterketara bideratuko da, guztira 115.000 euro. Aurreko urteetako lan ildoak jarraituz atal hauek landuko dira: Aire kalitatearen azterketa; Bioaniztasuna, Aiako Harria parkean burutu beharreko lanak, Landare inbaditzaileen aurkako programa, Lurzoru kutsatuak dauden eremuetarako lan teknikoak egiteko; zarata planaren ekintzak.

## 231-BERDINTASUNA-LANKIDETZA-INMIGRAZIOA.

- Kontsolidatuta dauden programen jarraipena ziurtatzen da: Hezikidetza (60.000 euro) eta tailerren eskaintza (35.000 euro) eta Beste ekimenak (70.000 euro).
- Genero zehar-lerrotasuna lantzeko partida berezia sortu da, aholkularitza kontratu bidez 45.000 euro.
- Lankidetza alorrean, partida nagusia diru-laguntzetara bideratuko da: 223.444 lankidetza proiektuetarako. 2018an baino %4,5 gehiago.
- Immigrazio alorrean partida nagusia AMHER elkartearekin lankidetza hitzarmena finantzatzeko da (65.000 euro).

## 231-GAZTERIA.

- Alokairu diru-laguntza programa mantentzen da, 2019 urterako 136.000 euro. Kopuruak %65,85eko hazkundera du, programa honek 16 hilabete finantzatuko dituelako (2019 iraila/2020 abendua), urte naturalarekin bat egiteko.

## 231- ZERBITZU SOZIALAK.

- Zerbitzu Sozialak erakundeari ekarpena handitzen da %9,16, guztira 2.316.941 euro. Honen arrazoi nagusiak: udal langileen soldata igoera, eta etxez etxeko zerbitzuaren hazkundera.

## 241-TOKI GARAPENA.

- Administrazio lanak burutzeko pertsonal dotazio berria, egun erdiz.
- 2018an indarrean izan diren programa nagusiak mantentzen dira: iturrola-coworking (10.000 euro), Enplegu orientazio zerbitzua (60.000 euro) eta Ekimenak (25.000 euro).
- BERRIAK elkartearekin urteroko hitzarmena, 16.500 euro.
- BETERRI eskualdeko udalek 2017 urtean sinatutako hitzarmenean jasotako lankidetzaren programa finantzatzeko Hernaniko Udalarik dagokion ekarpena jaso da, guztira 135.789 euro.

### 323-HEZKUNTZA.

- Ikastetxeetan lantzen diren hezkuntza programetara 62.000 euro bideratzen dira, %24ko hazkundera, etorkinen integrazioarako programa berria jasotzen baita.
- Osakidetzarekin lankidetzan, osasun mapea ikastetxeetan egiteko 10.000 euro.
- Hezkuntza eraikinetan inbertsioak egiteko 150.000 euro.
- Musika Eskolan inbertsio nagusia haize egokitua jartzea izango da, 40.200 euro.

### 330-KULTUR ZERBITZUAK.

- Kulturaren sustapenerako ohiko programak mantentzen dira: kultur ekintzak (153.400 euro), zinema zerbitzua (30.000), kultura tailerrak (130.000 euro).
- Diru-laguntza lerroak mantentzen dira: kultur ekintzetarako diru-laguntza programa (80.000 euro), arte sorkuntzarako bekak (10.000 euro), Auzo elkarteak (106.000 euro), Musika Banda (83.459 euro) eta Txistulari Banda (38.813 euro).
- Herri jaiak eta ospakizunetarako 200.000 euro.
- Liburutegian auto-mailegu zerbitzu berria, 8.000 euro.
- Liburuak kalean eskuragai jarri ahal izateko altzari inbertsioak, 30.000 euro.
- Liburutegiko funtsak erosteko, urtero bezala, 44.000 euro.
- Biteri Kultur Etxean hobekuntza lanak egiteko, 200.000 euro: leihoak aldatzeko 2. Fasea, klimatizazioa hobetu, segurtasuna eta auto-babes plana egokitu.

### 335-EUSKARA.

- Urteroko ekintza kanpaina mantentzen da, 25.200 euro.
- Buruntzaldeako euskara egitasmoak finantzatzeko 30.000 euro.
- Diru-laguntza lerro nagusia mantentzen da. Deialdi bidezko ekimenetarako 54.200 euro eta euskararen aldeko elkarteekin jarduna sustatzeko 146.200 euro (Hernaniko Kronika, Dobera, Euskara Ari du, AEK...).

### 342- KIROL SUSTAPENA.

- Ikastaroetarako monitorean kontratuan %34ko igoera aurreikusi da, 2018ko datuak oinarri hartuta. Guztira 268.000 zerbitzu honetarako. Sarreretan ere pareko igoera aurreikusi da.

- Inbertsiotarako 114.000 euro aurreikusi dira. Kiroldegian eta Jolas igerilekuetan hainbat hobekuntza egiteko: eraikinetan eta ur sisteman hobekuntzak, makina berrien erosketa, txartelak saltzeko makinak...

#### 432-TURISMOA.

- Urteroko ekintza plana garatzeko, 36.000 euro.
- Ekintza Planean jasotako ekimen berrietarako, 15.000 euro.
- Audio-gida proiektu berria, 30.000 euro.

#### 920-ARTXIBOA.

- Oroimen historikoa lantzeko programaren jarraipena, 21.000 euro.
- Kultur ondarea aztertzekeo bekak, 8.000 euro.

#### 924-PARTEHARTZEA.

- Parte hartze programak bideratzeko, 90.000 euro.
- Auzolan programarako diru-laguntza lerroa, 25.000 euro.

#### BESTERIK

- FIARE elkartearen bidez mikrokredituen funtsa hornitzeko 20.000 euroko partida.
- Ereñotzu Toki Entitateari ekarpena, 409.731 euro.
- Herritarren Harrera Zerbitzua indartuko da pertsonal dotazio berriarekin.

Hernanin, 2018ko abenduaren 11n  
Alkatea, Luis Intxauspe Arozamena